



ORIOKOUNDALA



Epaimahaiaren agiria

Aurtengo EUSKARAZ GAZTE literatur lehiaketaren epaimahaia 2018ko azaroaren 29an elkartu zen Orioko kultur etxean. Epaimahaia honako hauek osatu dute: Karkara aldizkariko Eli Manterolak, Aiako Udaleko kultur teknikari Eli Lasak eta Orioko Udaleko euskara-teknikari Jabier Zabaletak.

Aurkeztutako lanen kantitateari dagokionez, aurtengoa ez da izan lehiaketaren urterik oparoena; baina, hala ere, epaimahaiak nabarmendu nahi du lanen batez besteko kalitatea ona izan dela eta horren proba da aurtengoa ez dugula batere saririk utzi eman gabe eta guztiak banatu ditugula. Karkara aldizkariaren urtarrileko zenbakian publikatuko dira lan sarituak eta aukera izango duzue zuek ere ikusteko lan ederrak direla aurtengoak.

Lehiaketara aurkeztutako lanak banan-banan aztertu ditu epaimahaiak eta, iritziak trukatu eta eztabaidatu ondoren, honako sariak ematea erabaki du:

Ipuin saila

«**Katebegia**» izeneko lanak irabazi du ipuin alorreko accesitako bat. Ama-alaben arteko bazkalondoko solasa kontatzen du, gaia txakurrak dituztela. Etxean txakurrekin izandako esperientziak elkarri gogoraraziz pasatzen dute denbora, kafea hartzen duten bitartean eta, gaiaz haratago, elkar lotzen dituen kateari beste katebegi bat eransten diote, gozo eta samur. 100 euroko saria eta oroitagiria irabazi ditu ipuin honekin Alazne Arrutik. Datorrela jasotzera.

Alor honetako beste accesita «**Baserria**» ipuinari eman diogu. Ipuin laburra da eta ez dauka hitzik soberan. Arin eta gozo kontatzen du kontatu beharrekoa eta erraz harrapatzen du irakurlearen interesa.



ORIOKOUNDALA



Egilea ezaguna dugu lehiaketa honetan, aurreko bi urteotan ere irabazi duelako sariren bat. Datorrela bere 100 euroko saria eta oroitagiria jasotzera: Ane Etxabe.

Ipuin alorreko hirugarren saria, 150 euro eta oroitagiria, «**Gab(onak)**» ipuinari eman diogu. Egilea oso gaztea da, 16 urte, eta aurreneko aldia du lehiaketan parte hartzen. Poza hartu dugu. Ipuinak prosa zainduan kontatzen du hilabete gutxiren barruan bizimodua guztiz aldatu zaion gatzetxoaren istorioa, bitartean gaur egungo gaiak hizpidera ekarriz: animalien kontrako tratu txarren salaketa, kontsumismoa, guraso eta seme-alaben arteko konponezinak... Egilea Joxe Mari Unanue da eta idazten segitzera animatu nahi dugu, erakutsi du-eta ondo moldatzen dela. Datorrela saria jasotzera.

Mikel Iruretagoienak irabazi du ipuin alorreko bigarren saria, 200 euro eta oroitagiria, «**Iker**» lanarekin. Iaz ezagutu genuen Mikel ipuingile gisa, eta saria eraman zuen, aurten bezala. Aurtengo kontakizuna iazkoaren oso desberdina da. Oraingo honetan gazte errebelde baten gorabeherak kontatu dizkigu ondo jositako prosa bizian. Bertsolari ere bada Mikel eta ezagun zaio hitzarekiko maitasuna eta gauzak zuzen eta argi kontatzeko dohaina. Etorri Mikel, mesedez, saria jasotzera.

Aurtengo lehendabiziko saria, 300 euro eta oroitagiria, «**Aitona ingelesa**» izeneko ipuinak irabazi du. Epaimahaikideok ez genuen sorpresa handirik hartu, egia esan, egilea nor zen jakiteko sobrea ireki genuenean. Azken urteotan literatura idazteko gogoia sentitu eta estilo propio bat garatzen ari da egilea, pausoz pauso: istorio asmatuak baina egiantza handia dutenak, dokumentazio-lan zehatza, gertu-gertuko kontakizun eta pertsonaiak, hizkuntza landu ederra... Ez da, beraz, harrizkoa aurten ere berak eramatea lehiaketa honetako lehen saria: 300 euro eta oroitagiria. Datorrela jasotzera: Iñaki Iturain.



ORIOKOU DALA

Euskaraz
bizi-bizi

Olerki saila

Epaimahaiak «**Mundua zapi bat balitz**» izeneko olerkiari eman dio olerki saileko accesit bat. Mundua handiegi zaio egileari eta zapi baten neurrira ekarri nahiko luke, bertan ez galtzeko; urruti, faltan, sumatzen duen guztia ostera bueltan bisitatu ahal izateko. Giza neurrikoa nahi luke mundua egileak, distantziak 'etengabe zorrozten dituelako labanak'. Olerki honekin 100 euroko saria eta oroitagiria irabazi ditu Alazne Arrutik.

Bigarren accesita «**Aurten bai!**» izeneko bertso-sortari eman diogu. Umorez osatutako sorta bat da, bost bertsokoa, eta azken bertsoa sorpresarekin bukatzen da. Ezin izango dut, hortaz, aurreratu zein den gaia, 'spoilerrik' ez egiteko. Onena egileari berari hona etortzeko eskatzea izango da, dagoeneko ohitura handia dauka-eta ekitaldi honetan bere bertsoak kantatzen. 100 euroko saria eta oroitagiria irabazi ditu Garazi Urretabizkaiak.

Olerki eta bertsoetako hirugarren saria, 150 euro eta oroitagiria, «**Argia**» izeneko bertso-sortak irabazi du. Oso bertso hunkigarriak dira, 60 urterekin lehen aldiz amona izatekotan den emakume batek jarriak, 'gorde ezin den poza' agertzeko. Egilea bertsolaria da eta erraz egiten du bertsoan. Esango genuke, hala ere, antzematen dela bertso hauek lantzen eta edertzen ohi baino denbora gehiago pasatu duela. Mimo eta kariño handiz eginak iruditu zaizkigu. Datorrela saria jasotzera Rosi Lazkano.

200 euroko bigarren saria irabazi du «**Badira**» izeneko olerkiak. Egileak lehen aldia du gure lehiaketa honetan parte hartzen eta poztu egin gaitu bere ahots berri ederrak. Saritu diogun lana soila da, apainduraz biluzia, baina badu zerbait erakargarri biluztasun horretan. Mundura datozen/dakartzagun haurren taxonomia moduko bat egiten du olerkiak eta, zerrendatze horren bidez, gure gizarte honen eta familia-ereduen erretratua osatzen du. Gustatuko zaizue Iona Rekarteren olerki hau.

Aurtengo lehiaketaren lehen saria, olerki eta bertsoetako sailean, beste bertso-sorta batek irabazi du. «**Marearen kontra igerian**» du izena



ORIOKOUNDALA



zortzi bertsoko sortak eta bertan benetako gertaerak kontatzen omen dizkigu egileak. Azken aldian ohi baino arretatsuago omen dabilta guardia zibilak arrantzako txalupatxoak-eta zaintzen eta Orioko arrantzale bati baino gehiagori tokatu omen zaizkio parean, paper eta esplikazio eske. Gure bertsolariari ere bai, nonbait eta, koloreak bueltatu zaizkionean, bertso hauek osatu ditu, berezkoa duen graziarekin. Bereak dira 300 euro eta oroitagiria. Egilearen izena: Mikel Iruretagoiena.

Orio, 2018ko abenduaren 3a.